

Hartuko al zenuke etxean atzerriko ume bat?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Familia askok hartzen dituzte kanpoko umeak uda gure artean pasatzeko, baina zuk planteatu al duzu inoiz horrelakorik? Jarraian, bideo pasarte bat ikusiko duzu. Bertan, Marijo Galparsorok bere esperientzia kontatuko du. Bi aldiz ekarri ditu ume sahararrak uda Euskal Herrian pasatzera. Ikusi bideoa eta erantzun beheko galderei.



- Nola hasi ziren Marijo-eta umeak ekartzen?
- Normalean zenbat urtera arte etortzen dira?
- Ekarri zuten neskari ikasten gelditzeko eskaini zioten, baina ez zuen nahi izan. Zergatik?
- Haiengandik ere asko ikasi dute Marijoren etxean. Batez ere nork?
- Nolako harremana daukate gaur egun neskarekin?
- Zertarako nahi du Marijok umeak hemen ikasten gelditzea?

Artikulu honetan hainbat deklinabide-atzizki kendu ditugu. Irakurri testua eta jarri falta diren atzizkiak.

1986_____ apirilaren 26_____, Txernobilgo Vladímir Ilich Lenin izeneko zentral nuklearrean erreaktore_____ batek su hartu zuen eta izugarrizko kalteak eragin zituen. 2011_____ Japonian Fukushima istripu nuklearra azken urteetako ezbehar larrietako bat izan da. Hildakoak, desagertuak, zaurituak... Inguru horietan bizi diren haur eta helduak, oraindik gaur egun, hodei erradiaktiboak eragindako kutsadura jasaten ari dira. 1975_____, badira urte batzuk, Espainiak Mauritaniaren eta Maroko_____ esku utzi zuen Mendebaldeko Sahara. Orduz geroztik, independentzia-aldarrikapenak eta guda nagusitu dira Saharan.



Gaur egun, sahararrak Aljeriako basamortuko errefuxiatuen kanpaleku _____ bizi dira, eta saharar belaunaldi berriek, euren jatorrizko lur-eremua ezagutu gabe, kanpalekuetako baldintza gogorak bizi behar izaten dituzte urte osoan zehar.

Belaunaldi berriek inoiz ikusi ez duten lurralde batera itzultzeko amets egiten dute.

Osasunaren Munduko Erakundeak dio horrelako egoeran bizi diren haur ____ 40 egun etxetik urrun igarotzea oso onuragarria dela, haien osasunak hobera egiten duelako. Gogoeta horretatik abiatuta, elkartasun-proiektuen bitartez, istiluetan dauden herrietatik haur asko etortzen da Euskal Herrira udako bi hilabeteak bertan pasatzera. Besteak beste, Saharatik eta Txernobiletik datoz haur horiek.

Osasungarria gertatzen zaiela baieztatzen duten arren, zenbait aditu ____ diote haur horiei, inguru hauetako errealitatea ezagutu ondoren, etxera itzultzea oso gogorra egiten zaiela. Marijo Galparsoro ataundar ____, aldiz, oso garbi dauka haurrentzat oso ona dela eta asko eskertzen dutela. Harekin izan gara, bere bizipenak ezagutzeko.

Marijok bigarren aldiz ekarri du haur saharar bat etxera: "Inguruko lagun batzu ____ udan saharar umea ekartzen zuten eta guri ere gogoia piztu zitzaigun. Sahara ____ egoera ere ezagutzen genuen, eta laguntzeko era bat izan zitekeela pentsatu genuen. Horrela hasi ginen".

Marijok pentsatzen du onura besterik ez duela horrelako umeak gurera ekartzeak.



Lehenengo urtea txarra izan ohi dela esan digu Marijok, haurrak ez dakielako nora datorren, eta galduta sentitzen da hasieran. Baina gero, egokitzen direnean, segituan hartzen omen diote erritmoa uda ____ : "Gu, euskara erakusten saiatzen gara, herriko umeekin harremanak izateko, eta, udalekuen bitartez, Ataungo gainerako haurrak ezagutzen dituzte".

Medikuarengana, dentistarengana edota okulista ____ joateko ere aprobetxatzen da udan gure artean egiten duten egonaldia. Hartara, osasunean ere hobera egiteko aukera eta bitartekoak eskaintzen zaizkie. Atzerrikoak eta bertakoak, guztiak haurrak.

Hala ere, atzerriko haurrak ez dira hemengo haurrengandik hain desberdinak. Izan ere, udan haur ____ gehien gustatzen zaiena igerileku ____ joatea da, eta haur sahararrak ere ez dira atzera geratzen, gehiena hori gustatzen baitzaie: "Lehenengo urtean egokitzea kosta egiten zaie, baina bigarren ____ aurrera primeran ibiltzen dira. Askok gozatzen dute, batez ere igerileku ____ . Galparsorotarren etxera dagoeneko Saharako bi haur etorri dira azken urteotan: Lehenengo aldia, Lhaiza, eta, oraingoan, Sualem. "Bigarren esperientzia da aurtengoa. Lehenengoa neska zen eta oraingoa mutila. Lhaiza 6 urterekin etorri zen lehen aldiz eta 12 urte ____ azkenekoan. Sualemek 11 urte ditu eta bosgarren aldia du gure artean".

Normalean hamabi urtera arte etortzen dira, baina Saharako familien artean arau batzu ____ dituzte. Adibidez, aitak leku bereziren batean lan egiten badu, urte bat edo bi gehiago etortzen dira normalean. Edota familiaren nahia ikasketak egin ditzala bada, urte gehiago gelditzeko saiakera egiten dute". Lhaizaren esperientzia bestelakoa izan dela kontatu digu Marijo ____ : "Lhaiza bere familia ____ alaba zaharrena da, eta bestelako eginbeharrak ditu Saharan. Hemen ikasteko laguntza eskaini genien, baina familiak ez zuen nahi izan".

Ez da harritzekoa Saharako umei, batez ere, igerilekua gustatzea.

Hurrek jaso bai, baina bueltan ere asko ematen digute: "Haiengandik jasotzen duguna izugarria da, zoragarriak dira. Emateko daukaten guztia ematen dute. Gure etxean, guk baino gehiago, Maide gure alabak ikasi du ume horien ____ , gauza-pila bat, eta oso aberatsa izan da udako egonaldia guztiontzat".

Maidek izugarri ikasi du txikitatik Lhaizaren ondoan.

Baina, gure artean galdera bat dugu: haur horientzat bi hilabeterako etortzea kaltegarria ote da? "Gurera Lhaiza azkeneko urte ____ etorri zenean, nerabegaroko aldaketa fisikoak hasi berri zituen, eta, pediariarengana joan ginenean, zera esan zigun: "Lastima da. Lhaiza laster Saharara joango da eta hemengo elikadurarik ez duenez izango, bere gorputza ____ garapena gelditu egingo zaio". Eta pediatrik esan bezala gertatu zen. Elikadura eta tenperatura altuek ume horien garapena eten egiten dute. Sei-zazpi urteko haurrak handik hona bi hilabete ____ ateratzea nola izango da ba, txarra?", galderarekin (edo erantzunarekin) agur esan digu Marijok.

Eta zuk... hartuko al zenuke?

- Ezagutzen al duzu atzerriko haur bat uda pasatzera ekarri duen familiarik? Nola joan zaie?
- Zer iruditzen zaizu, haurrentzat onuragarria edo kaltegarria dela?
- Zuk ekartzeko asmorik izan al duzu inoiz? Zergatik.



Hartuko zenuke etxean atzerriko ume bat?

- Nola hasi ziren Marijo-eta umeak ekartzen?

Ezagutzen zuten zerbait Saharako borrokaren inguruan, eta hemen umeak ekartzen zituen jendea ere ezagutu zuten. Haiekin kontaktuan jarrita gogoia piztu zitzaion.

- Normalean zenbat urtera arte etortzen dira?

12 urte arte

- Ekarki zuten neskari ikasten gelditzeko eskaini zioten, baina ez zuen nahi izan. Zergatik?

Familiako neska zaharrena zelako eta familiakoek ez zutelako begi onez ikusten neska bakarrik hemen egotea.

- Haiengandik ere asko ikasi dute Marijoren etxean. Batez ere nork?

Alabak

- Nolako harremana daukate gaur egun neskekin?

Deitu egiten diote, eta beste umeen bitartez gauzak bidaltzen dizkiote

- Zertarako nahi du Marijok umeak hemen ikasten gelditzea?

Gero euren herrira bueltatzeko eta han praktikan jartzeko hemen ikasitakoa

Testua

1986ko apirilaren 26an, Txernobilgo Vladímir Ilich Lenin izeneko zentral nuklearrean erreaktoretako batek su hartu zuen eta izugarriko kalteak eragin zituen. 2011n Japonian Fukushima istripu nuklearra azken urteetako ezbehar larrietako bat izan da. Hildakoak, desagertuak, zaurituak... Inguru horietan bizi diren haur eta helduak, oraindik gaur egun, hodei erradiaktiboak eragindako kutsadura jasaten ari dira.

1975ean, badira urte batzuk, Espainiak Mauritaniaren eta Marokoren esku utzi zuen Mendebaldeko Sahara. Orduz geroztik, independentzia-aldarrikapenak eta guda nagusitu dira Saharan. Gaur egun, sahararrak Aljeriako basamortuko errefuxiatuen kanpalekuetan bizi dira, eta saharar belaunaldi berriek, euren jatorrizko lur-eremua ezagutu gabe, kanpalekuetako baldintza gogorak bizi behar izaten dituzte urte osoan zehar.

Belaunaldi berriek inoiz ikusi ez duten lurralde batera itzultzeko amets egiten dute.

Osasunaren Munduko Erakundeak dio horrelako egoeran bizi diren haurrentzat 40 egun etxetik urrun igarotzea oso onuragarria dela, haien osasunak hobera egiten duelako. Gogoeta horretatik abiatuta, elkartasun-proiektuen bitartez, istiluetan dauden herrietatik haur asko etortzen da Euskal Herrira udako bi hilabeteak bertan pasatzera. Besteak beste, Saharatik eta Txernobiletik datoz haur horiek.

Osasungarria gertatzen zaiela baieztatzen duten arren, zenbait adituk diote haur horiei, inguru hauetako errealitatea ezagutu ondoren, etxera itzultzea oso gogorra egiten zaiela. Marijo Galparsoro ataundarrak, aldiz, oso garbi dauka haurrentzat oso ona dela eta asko eskertzen dutela. Harekin izan gara, bere bizipenak ezagutzeko.

Marijok bigarren aldiz ekarki du haur saharar bat etxera: "Inguruko lagun batzuek udan saharar umea ekartzen zuten eta guri ere gogoia piztu zitzaigun. Saharako egoera ere ezagutzen genuen, eta laguntzeko era bat izan zitekeela pentsatu genuen. Horrela hasi ginen".

Marijok pentsatzen du onura besterik ez duela horrelako umeak gurera ekartzeak.

Galparsorotarren etxera dagoeneko Saharako bi haur etorri dira azken urteotan: Lehenengo aldia, Lhaiza, eta, oraingoan, Sualem. "Bigarren esperientzia da aurtengoa. Lehenengo neska zen eta oraingo mutila. Lhaiza 6 urterekin etorri zen lehen aldiz eta 12 urterekin azkenekoan. Sualemek 11 urte ditu eta bosgarren aldia du gure artean".

Normalean hamabi urtera arte etortzen dira, baina Saharako familien artean arau batzuk dituzte. Adibidez, aitak leku bereziren batean lan egiten badu, urte bat edo bi gehiago etortzen dira normalean. Edota familiaren nahia ikasketak egin ditzala bada, urte gehiago gelditzeko saiakera egiten dute”. Lhaizaren esperientzia bestelakoa izan dela kontatu digu Marijok: “Lhaiza bere familiako alaba zaharrena da, eta bestelako eginbeharrak ditu Saharan. Hemen ikasteko laguntza eskaini genien, baina familiak ez zuen nahi izan”.

Segituan ikasi dute euskara Lhaizak eta Sualimek.

Lehenengo urtea txarra izan ohi dela esan digu Marijok, haurrak ez dakielako nora datorren, eta galduta sentitzen da hasieran. Baina gero, egokitzen direnean, segituan hartzen omen diote erritmoa udari: “Gu, euskara erakusten saiatzen gara, herriko umeekin harremanak izateko, eta, udalekuen bitartez, Ataungo gainerako haurrak ezagutzen dituzte”.

Medikuarengana, dentistarengana edota okulistarengana joateko ere aprobeztatzen da udan gure artean egiten duten egonaldia. Hartara, osasunean ere hobera egiteko aukera eta bitartekoak eskaintzen zaizkie.

Atzerrikoak eta bertakoak, guztiak haurrak

Hala ere, atzerriko haurrak ez dira hemengo haurrengandik hain desberdinak. Izan ere, udan haurrei gehien gustatzen zaiena igerilekura joatea da, eta haur sahararrak ere ez dira atzera geratzen, gehiena hori gustatzen baitzaie: “Lehenengo urtean egokitzea kosta egiten zaie, baina bigarrenetik aurrera primeran ibiltzen dira. Asko gozatzen dute. Batez ere igerilekuan”.

Ez da harritzekoa Saharako umeei, batez ere, igerilekua gustatzea.

Haurrek jaso bai, baina bueltan ere asko ematen digute: “Haiengandik jasotzen duguna izugarria da, zoragarriak dira. Emateko daukaten guztia ematen dute. Gure etxean, guk baino gehiago, Maide gure alabak ikasi du ume horiengandik, gauza-pila bat, eta oso aberatsa izan da udako egonaldia guztiontzat”.

Maidek izugarri ikasi du txikitatik Lhaizaren ondoan.

Baina, gure artean galdera bat dugu: haur horientzat bi hilabeterako etortzea kaltegarria ote da? “Gurera Lhaiza azkeneko urtean etorri zenean, nerabazaroko aldaketa fisikoak hasi berri zituen, eta, pediatrarengana joan ginenean, zera esan zigun: “Lastima da. Lhaiza laster Saharara joango da eta hemengo elikadurarik ez duenez izango, bere gorputzaren garapena gelditu egingo zaio”. Eta pediatrak esan bezala gertatu zen. Elikadura eta tenperatura altuek ume horien garapena eten egiten dute. Sei-zazpi urteko haurrak handik hona bi hilabeterako ateratzea nola izango da ba, txarra?”, galderarekin (edo erantzunarekin) agur esan digu Marijok.